

EE.- 2025-00133

ALKATETZA DEKRETUA

OINARRIA: 2026ko Otsailaren 20an, Larrabetzuko Udalak Larrabetzuko sortzaile gazteei kultur sorkuntzarako "Oier Beldarrain Lazkano" beka emateko zuzentarauak jasotzen dauan ordenantzearen behin betiko onespena egin zuen.

OINARRIA: Behin betiko izaerarekin onartutako 2026ko ekitaldi ekonomikorako udal aurrekontuaren 330.48001 zenbakiko aurrekontu-partidea dago, 4.500,00 euroko zenbatekoagaz laguntza-programa horretarako.

Erantsitako dokumentazioa aztertuta, eta Diru-laguntzei buruzko zehazkiaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluan eta kirol elkarteei udal diru-laguntza emateko zuzentarauak jasotzen dauan ordenantzearen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, **HAU EBATZI DOT:**

LEHENENGOA.- Larrabetzuko sortzaile gazteei kultur sorkuntzarako "Oier Beldarrain Lazkano" beka emateko deialdia onartzea, aurrekontuaren 330.48001 aurrekontu-partidan ezarritakoaren arabera, 4.500,00 euroko kredituagaz. Deialdia dekretu honetan I eranskin bezala agertzen da.

BIGARRENA.- Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udalerraren web-orrialdean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Osoko Bilkureak egingo dauan hurrengo bileran ebazpen honen barri emongo da.

LARRABETZUKO SORTZAILEENTZAKO "OIER BELDARRAIN LAZKANO" BEKAK EMATEKO ZUZENTARUAUAK

1. DIRULAGUNTZAREN OBJEKTUA.

1.- Deialdi honen helburua da Larrabetzuko sortzaileei kultur sorkuntzarako bekak eskatzeko eta emateko prozedura arautzea. Kultur sorkuntza bezala ulertzen da artistaren imajinaziotik eratorritako edozein lan edo obra: musika, pintura, eskultura, literatura, antzerkia, bakarrizketa, poesia-emanaldia, bertsolaritza, zinema, komikia, soinu konposizioa, ikus-entzunezko konposizioa, konposizio digitala, dantza, etab. Baita diziplinen arteko hibridazioa ere.

2.- Larrabetzuko Udalak Larrabetzuko Sortzaileak beka deialdia sortu gura du, euskarazko kulturgintza bultzatzeko asmoz. Beka horren helburuak dira:

- Euskarazko sorkuntza bultzatzea.
- Larrabetzuko euskarazko kultura programazioan eragitea.
- Larrabetzuarrek beren sormena garatzeko aukera-guneak izatea.

2.- ONURADUNAK.

1.- Ordenantzaren deialdian parte hartu nahi dutenek Larrabetzun erroldaturik egon behar dute eta 16 urtetik gorakoak izan. Bakarka zein taldeka aurkezteko aukera dago.

BASES REGULADORAS DE LAS BECAS PARA CREADORES/AS DE LARRABETZU "OIER BELDARRAIN LAZKANO"

1.- OBJETO DE LA SUBVENCIÓN

1.- Es objeto de la presente convocatoria regular el procedimiento para la solicitud y concesión de becas para la creación cultural a jóvenes creadores de Larrabetzu. Se entiende por creación cultural cualquier trabajo u obra derivada de la imaginación del artista: música, pintura, escultura, literatura, teatro, monólogo, poesía, bertsolarismo, cine, cómic, composición sonora, composición audiovisual, composición digital, danza, etc. También la hibridación entre disciplinas.

2.- El Ayuntamiento de Larrabetzu quiere crear una convocatoria de becas para jóvenes creadores de Larrabetzu, con el fin de impulsar la actividad cultural en euskera. Los objetivos de esta beca son:

- Impulsar la creación en euskera.
- Incidir en la programación cultural en euskera de Larrabetzu.
- Que los vecinos de Larrabetzu tengan espacios de oportunidad para desarrollar su creatividad.

2.- BENEFICIARIOS

1.- Quienes deseen tomar parte en la convocatoria de la Ordenanza deberán estar empadronados en Larrabetzu y tener más de 16 años. Existe la posibilidad de presentarse tanto individualmente como en grupo.

2.- Taldeka aurkeztuz gero, taldekide gehienek errolatuta egon behar dute Larrabetzun.

3.- Pertsona edo talde bakoitzak proiektu bakarra aurkez dezake.

4.- Gehienez ere, beka bi aldiz jaso ahal izango da bi deialdi desberdinetan.

5.- Pertsona fisikoak izan behar dira proiektua aurkezten dutenak.

6.- 18 urtetik beherakoek gurasoen edo tutore legezkoaren baimena beharko dute, eskabide orri orokorraren "Ordezkarria" izeneko atala betez.

3.- BAZTERTUAK

1.- Balioespen batzordeak eskumena izango du, kasuz kasu, diru-laguntza eskaera bat deialditik kanpo uztako, betiere honako irizpideak kontuan izanik eta behar bezala arrazoitu ondoren.

2.- Baztertuak izango dira, espreski:

- Kultur arloren batetik urteko 28.000,00 euro gordin baino handiagoko diru sarrera muga gainditzen duten artistak.
- Elkarreak.
- Era zuzenean edo zeharka indarkeria bultzatzen duten edota indarkeria motaren bati apologia egiten dioten proiektuak.
- Era berean, modu orokorrean deialdiaren bidez lagunduko diren ekintzetatik kanpo geratuko dira honako jarduerak:

2.- En el caso de presentarse por grupos, todos los miembros del grupo deben estar empadronados en Larrabetzu.

3.- Cada persona o grupo sólo puede presentar un proyecto.

4.- La concesión de la beca no podrá exceder de dos veces en dos convocatorias diferentes.

5.- Las personas físicas deben ser las que presenten el proyecto.

6.- Los menores de 18 años deberán contar con la autorización de sus padres o tutor legal, cumplimentando el apartado correspondiente del impreso general de solicitud denominado "Representación".

3.- EXCLUSIONES

1.- La Comisión de Valoración será competente, caso por caso, para excluir de la convocatoria una solicitud de subvención, teniendo en cuenta los siguientes criterios y previa justificación.

2.- Serán expresamente excluidos:

- Artistas que superen el límite de ingresos de alguna área cultural superior a 28.000,00 euros brutos anuales.
- Asociaciones.
- Proyectos que inciten directa o indirectamente a la violencia o hagan apología de algún tipo de violencia.
- Asimismo, quedan excluidas de las acciones subvencionadas con carácter general a través de la convocatoria las siguientes actividades:

- o Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzetako Lege Orokorraren 13.2. eta 13.3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean sartuak daudenak.
- o Bere izaera eta helburuengatik beste udal arlo edo erakunde autonomoren baten programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, horrelakoetan, dagokion erakunde edo udal arlori bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.
- o Quienes se encuentren incursos en alguna de las circunstancias previstas en los artículos 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- o Los que por su naturaleza y finalidad debieran haberse instrumentado a través de uno o varios programas de otro área u organismo autónomo municipal. No obstante, en estos casos, la solicitud se dirigirá a la entidad o área municipal correspondiente, dando traslado de la misma al interesado

4.- PROIEKTUEN ETA EKITALDIEN EZAUGARRIAK

1.- Proiektuak euskaraz izan beharko dira, derrigorrean, sormen prozesutik hasita exekuzioraino.

2.- Proiektuak izaera honetakoak izan daitezke: musika, pintura, eskultura, literatura, antzerkia, bakarrizketa, poesia-emanaldia, bertsolaritza, zinema, komikia, soinu konposizioa, ikus-entzunezko konposizioa, konposizio digitala, dantza, etab. Baita diziplinen arteko hibridazioa ere.

3.- Formatu txikiko jarduerak hobetsiko dira.

4.- Lanak jatorriz euskaraz eratuak izango dira edota euskaraz egindako lan baten egokitzapena. Azken kasu honetan, jatorrizko euskarazko lanaren kalitateak eta interesak egokitzapena justifikatu beharko dute.

5.- Ez dira onartuko itzulpen lan hutsetan oinarritutako proiektuak.

4.- CARACTERÍSTICAS DE LOS PROYECTOS Y EVENTOS

1.- Los proyectos deberán ser necesariamente en euskera, desde el proceso creativo hasta la ejecución.

2.- Los proyectos podrán tener la siguiente naturaleza: música, pintura, escultura, literatura, teatro, monólogo, poesía, bertsolarismo, cine, cómic, composición sonora, composición audiovisual, composición digital, danza, etc. También la hibridación entre disciplinas.

3.- Se priorizarán las actividades de pequeño formato

4.- Los trabajos serán originalmente realizados en euskera o la adaptación de un trabajo realizado en euskera. En este último caso, la calidad e interés de la obra original en euskera deberán justificar la adecuación.

5.- No se admitirán proyectos basados en la mera traducción.

6.- Inoiz taularatu edo jendaurrean aurkeztu gabeak izan behar dute. Era berean, deialdia abian jartzen denerako proiektua hasita badago, adierazi beharko da zein fasetan dagoen, bestelako laguntzarik jaso den proiektuari hasiera emateko eta zein den deialdian aurkeztuko den berrikuntza. Halako kasuetan bereziki aztertuko du epaimahaiak proiektuaren egokitasuna eta, behar izanez gero, xehetasun gehiago eskatuko ditu proiektuaren gainean.

5.- DIRULAGUNTZA EMATEKO AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA ETA EPEA

1.- Parte-hartzaileak ondorengoak aurkeztu behar ditu:

- Eskabide orri orokorra (bekaren berariazko deialdikoa); berau eskuragarri egongo da Larrabetzuko Udalaren web orrian edo Anguleri Kultur Etxean.
- Eskatzen diren datu pertsonalak eta norberak adierazi nahi dituzenez gain, honakoak zehaztu beharko dira "Azaltzen dut" atalean:
 - Proiektuaren izenburua.
 - Taldekako proiektua izanez gero, taldekideen izen-abizenak, adina eta adieraztea Larrabetzun erroldaturik daudela.
- Aurreko dokumentuez gain, proiektu bat aurkeztu beharko da:
 - Lanaren azalpen zehatza, euskaraz.

6.- No haber sido representados o presentados públicamente en ningún momento. Asimismo, en el caso de que el proyecto esté iniciado para la puesta en marcha de la convocatoria, deberá indicarse la fase en la que se encuentra, el inicio del proyecto para el que se han recibido otras ayudas y la novedad que se presentará en la convocatoria. En estos casos el Tribunal examinará especialmente la idoneidad del proyecto y, en su caso, solicitará más detalles sobre el mismo.

5.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR PARA LA CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN Y PLAZO

1.- El participante deberá presentar:

- Impreso general de solicitud (de la convocatoria específica de la beca), que estará disponible en la página web del Ayuntamiento de Larrabetzu o en la Casa de Cultura Anguleri.
- Además de los datos personales que se soliciten y los que se quieran indicar personalmente, se deberán especificar en el apartado "Expongo":
 - Título del proyecto.
 - Si se trata de un proyecto por grupos, nombre y apellidos de los miembros del grupo, edad e indicación de que están empadronados en Larrabetzu.
- Además de la documentación anterior, se deberá presentar un proyecto:

- o Luzera: 2-4 orrialde
 - Jardueraren ezaugarriak, gutxienez honakoak: argumentua, egitura, formatua, landu edo lortu nahi den helburua, kronograma...
 - Aurreikusten diren behar teknikoak proiektua aurrera eramateko.
 - Proiektuaren aurrekontua.
 - Egoki ikusiz gero, proiektuaren lagina edo erakusgarria, edozein formatutan.
- o Exposición detallada del trabajo en euskera.
 - o Longitud: 2-4 páginas
 - Características de la actividad, como mínimo: argumento, estructura, formato, objetivo a trabajar o alcanzar, cronograma...
 - Necesidades técnicas previstas para el desarrollo del proyecto
 - Presupuesto del proyecto.
 - Si se considera oportuno, muestra o muestra del proyecto en cualquier formato

2.- Eskabidea, udaleko alkate udalburuari zuzenduta, udalaren sarrera erregistroan aurkeztuko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkiderari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako bideetako edozeinetatik.

2.- La solicitud dirigida al alcalde-presidente se presentará en el Registro municipal de entrada del Ayuntamiento, por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 16 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Pública

3.- Eskakerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da. Epea zenbatzen hasiko da deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.- El plazo para la presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

6.- DIRUZ LAGUNDUKO DEN PROIEKTUAREN HAUTAKETA

6.- SELECCIÓN DEL PROYECTO A SUBVENCIONAR

1.- Diru-laguntza ezingo da zatitu, osorik eman beharrekoa da.

1.- La subvención no podrá fraccionarse, sino que deberá concederse en su totalidad.

2.- Proiektua onartzeko edo parte-hartzaile bat baino gehiago egonez gero, berariazko epaimahaia sortuko da deialdira aurkeztu diren lanak balioesteko. Epaimahaia lau pertsonen osatuko dute:

2.- Para la aprobación del proyecto o en el caso de que hubiera más de un participante, se creará un jurado específico para la valoración de los trabajos presentados a la

convocatoria. El jurado estará compuesto por cuatro personas:

- Larrabetzuko Udaleko Parekidetasun, Kultura, Hezkuntza, Euskera, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeko kide bat. Kide horren zeregina izango da, alde batetik, epaimahaiaren idazkaria izatea; bestetik, oinarrietan jasotako irizpideak betetzen direla bermatzea.
- Diru laguntza eskatu zaion gaien esperientzia egiaztatua duen Larrabetzutik kanpoko pertsona bi. Eskaera bat baino gehiago eta gai desberdinak badaude, pertsona bat sartuko da gai bakoitzeko. Beka emateko, zein proiektuen arteko lehiarako irizpideak honela puntuatuko dira:

Beka emateko, proiektuen arteko lehia proiektuak irizpide hauek bete beharko ditu, eta, hala badagokio, honela puntuatuko dira:

- Proiektuaren kalitatea eta interesa. Honako hauek balioetsiko dira: proiektuaren izaera, euskal kulturaren alderdiren bat oinarri izatea eta proiektuaren onuraduna nor izango den (pertsona kopurua eta talde zehatza). Gehienez ere 40 puntu.
 - Proiektuaren originaltasuna eta ezaugarri berritzaileak. Honako hauek balioetsiko dira: berritasuna, originaltasuna eta antzekorik ez izatea. Gehienez ere 25 puntu.
 - Egitasmoaren definizio-maila eta proiektua garatzeko sorkuntza-prozesuari buruzko xehetasunak:
- Un miembro de la Comisión Informativa de Paridad, Cultura, Educación, Euskera, Deportes y Juventud del Ayuntamiento de Larrabetzu. Su función será, por un lado, la de secretario del Tribunal y, por otro, garantizar el cumplimiento de los criterios recogidos en las bases.
 - Dos personas externas a Larrabetzutik con experiencia acreditada en el tema para el que se solicita la subvención. Si hay más de una petición y temas diferentes, se incluirá una persona por tema. Para la concesión de la beca, los criterios de concurrencia entre proyectos se puntuarán de la siguiente manera:

Para la concesión de la beca, el proyecto de concurrencia entre proyectos deberá cumplir los siguientes criterios, que se puntuarán, en su caso, de la siguiente manera:

- Calidad e interés del proyecto. Se valorará la naturaleza del proyecto, la existencia de algún aspecto de la cultura vasca y la identidad del beneficiario del proyecto (número de personas y grupo concreto). Hasta un máximo de 40 puntos.
- Originalidad y características innovadoras del proyecto. Se valorará la novedad, originalidad, etc. Hasta un máximo de 25 puntos.
- Grado de definición del proyecto y detalles del proceso creativo para su desarrollo: pasos a seguir, cronograma... Hasta 15 puntos.

eman beharreko urratsak, kronograma... Gehienez ere 15 puntu.

- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Gehienez ere 10 puntu.
Kultur proiektua abian jartzeko benetako aukera dagoen balioetsiko da, bai alderdi teknikoari dagokionez, bai alderdi ekonomikoaari dagokionez. Horretarako, proiektuaren aurrekontuan plazaratzeari lotutako gastu guztiak jaso behar dira, publizitatea eta behar teknikoak barne.
- Genero berdintasuna sustatzen duen proiektua izatea. Gehienez ere 5 puntu.
- Larrabetzu ezagutzera ematen duen proiektuak izatea. Gehienez ere 5 puntu.

Orotara 100 puntu banatuko dira. Beka jaso ahal izateko proiektuek gutxienez 50 puntu jaso beharko dute.

3.- Dirulaguntza emateko organo eskuduna alkatetzeta izango da.

7.- AURREKONTUA

1.- Deialdi honen oinarria den diru-laguntza emateko Larrabetzuko Udalak 4.500,00 euroko aurrekontua dauka 334.48001 aurrekontu partidaren kontra joango dena, 2026ko ekitaldi ekonomikorako Udala Aurrekontu Orokorrari jarraituz.

2.- Deialdian aurreikusitako beken zenbatekoa eman daitekeen gehienezkoa izango da, eta ezingo da aurkeztutako proiektuen artean banatu.

- Viabilidad técnica y económica del proyecto. Hasta un máximo de 10 puntos. Se valorará la posibilidad real de poner en marcha el proyecto cultural, tanto en su vertiente técnica como económica. Para ello, es necesario incluir en el presupuesto del proyecto todos los gastos asociados a su publicación, incluida la publicidad y las necesidades técnicas.
- Proyecto que promueva la igualdad de género. Hasta 5 puntos.
- Proyectos que den a conocer Larrabetzu. Hasta 5 puntos.

En total se repartirán 100 puntos. Los proyectos objeto de beca deberán obtener una puntuación mínima de 50 puntos.

3.- El órgano para la concesión de la subvención será la Alcaldía.

7.- PRESUPUESTO

1.- Para la concesión de la ayuda recogida el Ayuntamiento de Larrabetzu incorpora al presupuesto municipal para el ejercicio 2026 la partida presupuestaria número 334.48001 con un presupuesto de 4.500,00 euros.

2.- La cuantía de las becas previstas en la convocatoria será la máxima posible y no podrá ser objeto de reparto entre los proyectos presentados.

3.- Edozein kasutan, diru-laguntzaren zenbatekoa inolaz ere ez da izango (hura bakarrik hartuta edo beste Administrazio Publikoek, edo beste Erakunde publiko eta pribatuek emaniko laguntza edo diru-laguntza batekin batuta), onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

500 euro erabiliko dira batzordera joaten den espezialistaren dietetarako. 0,30 euro joan etorrietako kilometro bakoitzeko eta 100 euro saioko.

8.- DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA.

1.- Ordainketak honela egingo dira:

- % 90 ebazpena jakinarazi ondoren, konturako aurrerakin gisa, faktura bidez.
- % 10 proiektua burututakoan, faktura aurkeztu ondoren.

2.- Onuradunak proiektua gauzatuko ez balu, aurrerakin gisa jasotako diru-kopurua itzuli beharko dio Larrabetzuko Udalari, horretarako araudiak ezartzen dituen baldintzen arabera.

3.- Onuradunak Udalarekiko zerga-betebeharrak beteta izan behar ditu; hori dela eta, ofizioz eskatuko du ziurtagiri hori, eta zerga-betebeharrak bete ez baditu, onuradunari jakinaraziko zaio, eta ez da fakturarik ordainduko, egoera hori konpondu arte.

9.- BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK.

3.- En ningún caso, el importe de la subvención podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o Entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

Se destinarán 500 euros a las dietas del especialista que acuda a la comisión. 0,30 euros por kilometro de desplazamiento y 100 euros por sesión.

8.- PAGO DE LA SUBVENCIÓN

1.- Los pagos se realizarán de la siguiente manera:

- 90%, previa notificación de la resolución, en concepto de anticipo a cuenta, mediante factura.
- 10% una vez finalizado el proyecto, previa presentación de la factura.

2.- En el caso de que el beneficiario no ejecutara el proyecto, deberá reintegrar al Ayuntamiento de Larrabetzu la cantidad percibida en concepto de anticipo, en los términos que reglamentariamente se establezcan.

3.- El beneficiario deberá estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento, por lo que solicitará de oficio dicha certificación y, en caso de incumplimiento de las obligaciones tributarias, se notificará al beneficiario y no se pagará factura alguna hasta que se subsane dicha situación.

9.- OBLIGACIONES Y DERECHOS.

- Sarituak esleipena onartzen duela adierazi behar du gehienez 10 eguneko epean. Hala berretsi ondoren, Udala harremanetan jarriko da hautatukoarekin, lana gauzatzeko berariazko klausulak finkatze aldera.
- Sarituak 8 hilabeteko epea izango du proiektua gauzatzeko, esleipena onartzen dutenetik. Epe horretan Kulturako Batzorde Informatiboak proiektuaren jarraipena egingo du (aurrerapenak, zailtasunak, estreinaldidatak zehaztea...) eta horretarako derrigorrezkoa da antolatzen diren proiektuen koordinazio-bileretara etortzea zein azalpen zehatzak ematea bestelako bitartekoen bidez eskatzen direnean.
- Era berean, beka hauen zabalpenerako ekitaldirik (prentsaurrekoak, erreportajeak...) egiten bada, derrigorrezkoa izango da parte hartzea. Azkenik, memoria moduan eta, azken ordainketa jasotzeko, estreinaldiaren argazki batzuk edo lanaren bideo-zati esanguratsu batzuk.
- Larrabetzuko Udalak proiektuaren estreinaldia antolatu ahal izango du Larrabetzun. Beka honen baitan sortzen diren lanak zabaltzeko orduan, berariaz aipatuko da Larrabetzuko Udalak sustatzen duen Larrabetzuko Sortzaileak Bekaren deialdiaren baitan sortutako lanak direla. Onuradunak estreinaldia beren kabuz egiteko eskubidea du, Larrabetzuko Udalarekin adosten badu.
- El premiado deberá manifestar su aceptación a la adjudicación en el plazo máximo de 10 días. Una vez ratificado así, el Ayuntamiento se pondrá en contacto con el seleccionado para fijar las cláusulas específicas de ejecución del trabajo.
- El premiado dispondrá de un plazo de 6 meses desde la aceptación de la adjudicación para la ejecución del proyecto. En dicho plazo, la Comisión Informativa de Cultura del Ayuntamiento realizará un seguimiento del proyecto (avances, dificultades, fechas de estreno...), para lo cual es necesario asistir a las reuniones de coordinación de los proyectos que se organicen, así como dar explicaciones detalladas cuando se soliciten por otros medios.
- Asimismo, será obligatoria la participación en los actos de difusión de estas becas (ruedas de prensa, reportajes...). Finalmente, en forma de memoria y para recibir el último pago, algunas fotos del estreno o fragmentos de vídeo significativos de la obra.
- El Ayuntamiento de Larrabetzu podrá organizar el estreno del proyecto en Larrabetzu. A la hora de difundir los trabajos que se creen en el marco de esta beca, se hará mención expresa a que se trata de trabajos creados dentro de la convocatoria de la Beca Larrabetzuko Gazte Sortzaileak que promueve el Ayuntamiento de Larrabetzu. El beneficiario tiene derecho a realizar el estreno por sí mismo si lo acuerda con el Ayuntamiento de Larrabetzu.

10.- DIRULAGUNTZAREN ZURIKETA

10.- JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

1.- Modu orokorrean, oinarri hauen xede diren diru-laguntzak egiaztatzeko, ondorengo egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dira. 2027ko otsailaren 27 baino lehen:

- Jarduketa memoria, diru-laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena, zer jarduera burutu diren eta zer emaitza lortu diren adierazita. Gainera, bidezko denean, partaideen datuak adieraziko dira, datu horien azterketa eta interpretazioa.
- Jardueran izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira. diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, zein desbiderapen izan den adierazi behar da.
- Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa. Diru-laguntza ematen duen organoak behar adina frogagiri egiaztatuko du, diru-laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzteko beharrezkoak diren guztiak. Horretarako, berak hautatutako gastu frogagiriak bidal ditzala eskatuko dio onuradunari.

1.- Con carácter general, las subvenciones objeto de estas bases se acreditarán mediante la presentación de la siguiente documentación acreditativa, antes del 26 de febrero de 2027:

- Memoria de actuación acreditativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Además, cuando proceda, se indicarán los datos de los participantes, con mención de sexo y, en la medida de lo posible, el análisis e interpretación de dichos datos.
- Listado de clasificación de los gastos e inversiones en la actividad. Se indicará el acreedor y el documento, el importe, la fecha de realización y, en su caso, de pago. Si la subvención se concede conforme a un presupuesto, se indicará la desviación.
- Relación detallada de otros ingresos o ayudas que hayan financiado la actuación subvencionada, con indicación de su importe y procedencia.
- Documentación gráfica o audiovisual que sirva de testimonio y verificación del trabajo realizado. El órgano concedente de la subvención acreditará la documentación justificativa suficiente para que quede constancia razonable del correcto destino de la subvención. A tal efecto, solicitará al beneficiario la remisión de los justificantes de gasto que elija.

2.- Diruz laguntzen diren jarduerak laguntza ematen den abenduaren 31rako bukatu behar dira.

2.- Las actividades subvencionadas habrán de estar realizadas antes del día 31 de diciembre del año de su concesión.

I ERANSKINA / ANEXO I

DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA: GAZTE SORTZAILEAK

ERREGISTRO ZKIA:

DATA:

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

Izen-deiturak / Nombre y apellidos			NAN / DNI	
Helbidea / Domicilio			Herria / Municipio	
Posta kodea / C.P	Probintzia/Provincia	e-posta / e-mail	Telefono zk./Nº teléfono	
Noren izenean / En representación de			IFK / NIF – NAN / DNI	
Helbidea / Domicilio			Herria / Municipio	
Posta kodea/ C.P	Probintzia/ Provincia	e-posta / e-mail	Telefono zk./Nº teléfono	

AZALTZEN DUT / EXPONGO:

ERANSTEN DIREN AGIRIAK/

DOCUMENTOS QUE SE ADJUNTAN

	PROIEKTUAREN TITULUA Titulo del proyecto:	
	PROIEKTUAREN MEMORIA / Memoria del proyecto	
	PROIEKTUAREN AURREKONTUA / Presupuesto del proyecto	
	PROIEKTUAREN LAGINA (ERAKUSGARRIA) EDOZEIN FORMATUTAN / Muestra del proyecto en cualquier formato (HAUTAZKOA / opcional)	
	NAN FOTOKOPIA, Eskatzailea eta taldeko guztiena / Fotocopia DNI, del solicitante y de todos los participantes	
	KONTU KORRONTE ZKIA/ Nº de cuenta: ES	
TALDEKO PROIEKTUA BADA / SI EL PROYECTO ES GRUPAL:		
	IZEN ABIZENAK	LARRABETZUN ERROLDATUA
	ADINA	

DATA ETA SINADURA / FECHA Y FIRMA

IZAPIDETZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA/ DOCUMENTACIÓN A APORTAR PARA LA TRAMITACIÓN

1) Dirulaguntza eskatzeko eskabide-orria (*udal-eredua*) / Impreso de solicitud de ayuda económica (*modelo municipal*).

2) Eskabidea aurkezten duenaren NAN fotokopia eta taldeko guztiena (eta ordezkaritza balego, ordezkaritza adierazten duen dokumentua.) / Fotocopia del DNI de la persona que presenta la solicitud y todos los participantes del grupo (y documento que acredite su representación, si lo hubiere.)

3) Dirulaguntzaren xede izango den memoria zehatza EUSKARAZ, 2 – 4 orrialdekoa/ Memoria específica del proyecto objeto de la subvención EN EUSKERA, de 2 – 4 páginas.

4) Jardueraren ezaugarriak, gutxienez honakoak / Características específicas del proyecto objeto de la actividad, como mínimo:

- Argumentua / Argumento
- Egitura / Estructura
- Formatua / Formato
- Helburua / Objetivo
- Kronograma / Cronograma

5) Aurreikusten diren behar teknikoak /Necesidades técnicas que se prevean

6) Nahi izanez gero, proiektuaren lagina (muestra) bat edozein formatutan / Si se considera oportuno, una muestra del proyecto en cualquier formato.

7) Proiektuaren aurrekontua/ Presupuesto del proyecto

DOKUMENTAZIO EGIAZTAGARRIA (ez da aurkeztu behar)/ DOCUMENTACIÓN VERIFICABLE (no hay que aportar)

Larrabetzuko Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza-sistemen bidez, beste administrazio batzuen esku dauden dokumentu hauei buruzko kontsultak eta/edo egiaztapenak egingo ditu, salbu eta berariaz aurka egiten baduzu (kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu beharko duzu):

El Ayuntamiento de Larrabetzu, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, realizará las consultas y/o verificaciones de los siguientes documentos en poder de otras Administraciones, salvo que Vd se oponga expresamente (en cuyo caso deberá aportar la documentación):

- 1) Nortasun Agiri Nazionala (NAN) edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren (AIZ) / Documento Nacional de Identidad (DNI) o Número de Identificación de Extranjeros (NIE)
- 2) Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak eguneratuta dituen ziurtagiria / Certificado de estar al corriente de pago con la Seguridad Social.
- 3) Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eguneratuta dituen ziurtagiria / Certificado de estar al corriente de pago con Hacienda.

Nire datuak kontsultatzeari uko egiten diot, eta arrazoi hauek ematen ditut: Me opongo a la consulta de mis datos, alegando los siguientes motivos: _____

DATA ETA SINADURA / FECHA Y FIRMA:

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta gelditzen da interes publikoaren izenean edo Larrabetzuko Udalari emandako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzearekin, jarraibide harturik 6.1.e artikuluan aurreikusten duena 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, eta legeria aplikagarria.

El tratamiento de los datos de carácter personal queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al ayuntamiento de Larrabetzu, en los términos previstos en el artículo 6.1.e del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 y legislación aplicable.